

## **AHALMEN ESPAZIALAREN AZTERKETA BAT HAUR HEZKUNTZATIK UNIBERTSITATERAINO**

**Tesiaren egilea:** Iera Arrieta Cortajarena

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila

**Tesi-zuzendaria:** María Concepción Medrano Samaniego

**Tesiaren laburpena:**

XX. mendean azpimarratu izan da ahalmen espazialak adimen orokorrean duen garrantzia, baita Matematikaren (eta bereziki Geometriaren) ikas-irakaskuntzan ere. Horren ondorioz, hainbat ikertzailek ahalmen espaziala hartu du bere ikerkuntzaren oinarritzat. Hala ere, orain arte ikertzaileek emandako definizioen eta kontzeptuen anizkoitzasunarekin ez da erraza ahalmen espazialaren eredu bereizgarri eta sendo bat eraikitzea.

Gure lanean ahalmen espazialaren azterketa bat egin da, Hezkuntzako hiru aro kontuan hartuz: (1) Haur Hezkuntza, (2) Derrigorrezko Hezkuntza eta (3) unibertsitatea (Eskola Politeknikoko ikasleak, hain zuzen). Justifikazio enpirikoa duen Carroll-en eredu oinarritzat hartuz, aro bakoitzeko ikasleen ahalmen espaziala neurtzeko aukera emango duen eredu teoriko bana zehaztea eta bateratzea lortu dugu. Bestalde, maila bakoitzeko ikasleen ahalmen espaziala neurtu da, sexuaren arabera desberdintasun posibleak aztertu dira, hiru aroetan zehar ahalmen espazialak izan duen bilakaera aztertu da, Eskola Politeknikoko ikasleek zeregin espazialean erabilitako estrategiak aztertu dira, etab.

Lortutako emaitzekin, hainbat ondorio garrantzitsu atera ditugu; ondorio horiek, bereziki, Matematikaren ikas-irakaskuntzarako proposamen didaktikoak sortzeko lagungarri izango dira.